


James Joyceren *Dublindarrak* antzetzuko dau Ados Teatroak Igorren

13. orrialdea

Euskerazko 9 film labur Areatza, Dima eta Igorren

Laburbiraren XVI. edizioa da eta 2016 eta 2018 artean euskeraz egindako film laburrak ekarriko ditu. Ordubete inguruko saioan bederatzi istorio ikusteko aukerea egongo da: *Begi-ninien koreografia*, *Shell Phone*, *Zapatak*, *Ama*, *June*, *Hotzean garbitu*, *Ilunpean*, *Erroak* eta *Handiak eta txikiak*. 12. orrialdea



Kolazinoko Mendi Eguna hilaren 23an izango da Bedian

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

314

2019ko martiaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Feminismoak indarra erakutsi eban M8an

Gure eskualdean be erakutsi eban bere indarra feminismoak martiaren 8an izandako manifestazio eta konzentrazioetan eta Bilboko manifes-

tazino handian be izan ziran arratiarrak. Hamabostaldi honetan, egunaren inguruan antolatutako jarduera batzuk dagoz Arantzazun, Areatzan, Bedian eta Zeanurin. 5. orrialdea



Willy Toledo Igorren egon zan zezeilean

Willy Toledo aktore eta aktibista, Igorren egon zan zezeilean 20an, *Venezuela, inperialismoaren jomugan* izeneko berbaldia emoten eta alkarrizketea emon eutsan BEGITURI.

Toledok ondo ezetuten dau Latinoamerikako historia, batez be, atzenengo 100 urteetako eta interes berezia izan dau Kubako iraultza eta oingo Venezuelako bolibariar prozesuan.

Venezuelan abiatutako bolibariar prozesua ezin daua AEBko inperialismoak onartu eta horregaitik gertatzen dala Venezuelan gertatzen dana dino. Sano ezkor agertzen da egoera honen bailakaerari buruz. Izan be, bere ustez, Txinak edo Errusiak bakarrik gelditu ahal dabe hau modu militarrean, eta urte luzeak iraungo dauan gerra baten ateetan gagoz.

7. orrialdea



ARRATIA

Eskualdeko herri guztiak kolorez jantzi dira Aratusteetan

Horren lekuko dira irakurleak bialdu deuskuezan argazkiak eta eurentako batzuk erdiko orrialdeetan atera doguz. Edade guztietako jentek jantzi ditu mozorro tradizionalak edo-eta modernoak, eta eguneroko zereginak eta kezak alde batera itxita, kalera urten da kuadrillan edo familian ondo pasetako asmoz. Animaliak, superheroiak, mitologiako personajeak eta irudimenak sortutako beste personaje ugari izan dira negu epel honetako protagonistak. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Eukiontzi marroia txartel elektronikoagaz zabalduko da

Arantzazun eta Ubiden aldatu ditue eukiontzi marroien tapa txikiak, eta zabaltzeko txartel elektronikoa erabilten dabe. Sistema Arratia osora zabaldu gura dau lehenbailehen Arratiako Udalen Mankomunitateak.

Eukiontzi marroia ipini zanetik, behera egin dau bere erabilereak eta %30 gitxitu da arratiarrak konposta egiteko ixten daben materia organikoa. 5. orrialdea

AREATZA

Musik and Beer jaialdiaren aurkezpena hilaren 23an

Martiaren 23an, Musik & Beer jaialdiaren aurkezpena egingo dabe Areatzan. Jaialdiak blues, country, rhythm & blues eta Estatu Batuetako folk musika eta garagardao dastaketea buztartzen ditu. Aurten, maiatzaren 31n eta bagilaren 1ean izango da.

Hilaren 23an, 19:00etan, aurkeztuko dabe Aldamin tabernan aurtengo Musik and Beer jaialdia, eta herriko tabernetatik garagardao kata musikatua egingo da Detractors taldeagaz ondoren; 22:00etan, The Riff Truckers taldeak kontzertua joko dau Bixer tabernan.

Kata horretan sei garagardao desbardin dastatu ahal izango dira, nazinoartekoak zein Euskal Herrikoak. 5. orrialdea

ustrukue
jatetxea

Laster zabalik

Sukaldariak, sukalde-laguntzaileak, metrea eta jangela-zerbitzariak behar dira.

Telefonoa 679 377 034

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

San Blas hari



Kultura guztietan erabili dira kuttunak (saman, eskubitorrean) era guztietako bildurrai, osasun arlokoak be bai jakina, aurre egiteko. Jaiobari eta umetxoakaz batez be. Kristau tradizioak ohitura honeek bere egin ebazan. San Blas egunean, zezeilaren 3an, (sánblas ahoskatuta) samatik eskegita ipinten dan kordeltxo bedeinkatua da sanblas haria (sanblasárie, ahoskatuta). Bederatzi egunez aldean eroan eta gero, erre egin behar da. Gure inguruan ospetsuenak Bilboko San Nikolasekoak eta Urkiolakoak dira.

ERETXIA

Aldaketa klimatikoa gelditutea danon eskuetan dago

Aldaketa klimatikoa, a ze berba potoloa! Daborduko ohitu egin gara berba hau telebistan, irratan, egunkarietan, aldizkarietan edota sare sozialetan entzuteaz, eta ez gara konturatzen benetan arazo honek daukan garrantziaz. Gai honen azkenengo barriak oin dala egun gitxi batzuk Donostian egin daben Aldaketa Klimatikoaren Nazinoarteko Konferentziatik datoz. Aurkeztu dituen datuen arabera, 1880. urtetik gaurko egunerarte, planetako temperatura gradu bat igo da eta itsasoko ur mailak 23 zentimetro gora egin dau. Ez bajatzuz datu honeek esanguratsuak iruditzen, bildurgarria da holan jarraitu ezker, 2100. urtean Donostiako Zurriola hondartza zelan egongo litzateken aurreikustea, egoerarik onenean, hondartzak 11 metro galduko ebazan eta txarrenean 23 metro.

Donostiako zati handi bat ur azpian gelditzen bada, Bilbo eta Euskal kostaldeko beste hainbat herri be arrisku bardinean egongo dira. Zer egingo geunke egoera horren aurrean? Walter Lippman idazle Estatu Batuarak idatzi eban, gizakiok, gugandik urrun gertatzen danari jagokon garrantzia emoteko, gertakari horreek identifikau ahal doguzan irudietara itzuli behar gara, azken finean gizakia ohituta dagoanagaz identifiketan dalako. Ha-ta guzti be, nahiz eta Zurriola hondartza gugandik hur dagoan adibide bat izan, aldaketa klimatikoari buruz daborduko argitaratu dituen milaka datuetariko beste batzuk besterik ez dirala pentsau daikegu, betiko kontuak!

Zoritarrez betiko kontua da, bai, baina ziur behin baino gehiagotan pentsau eta hausnartu dogula gaiaren inguruan. Nik zer egin ahal dot aldaketa klimatikoa ekiditeko? Gure buruari galdera



ANA ETXEBARRIA

Ingurumen hezitzailea

hori eginda, lehenengo pentsetan dogun erantzuna, egoerearen errudun nagusiak fabrikak eta enpresa multinazionalak dirala da, guk ezer gitxi egin daikegula egoerea hobetuteko. Hori pentsau dozu zuk be? Holan bada, erratuta zagoz. Fabrika eta enpresa horreek gure eskakizunak asetzeko lan egiten dabe: eskaera handiagoa, kutsadura handiagoa eta beraz, aldaketa klimatiko nabarmenagoa.

Zer egin? Gure arbasoak lez kobazuloetara itzuli? Aukera bat izango litzateke, baina ez litzateke logikoa izango gizakiak historian zehar egin dituan hainbat eta hainbat aurkikuntza eta asmakizun bat-batean suntsitzea. Eta oin arteko aurrerapen guztiak alartzen badoguz eta danon artean aldaketa klimatikoa oztopatzeko indar egiten badogu?

Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako datuen arabera, 2017an Arratiako biztanle bakoitxak batez beste 1,15 kilogramo zabor sortu ebazan. Egia be bada birziklatzen eta berrerabilten diran hondakinen kopurua urtero apur bat gora egiten doala baina ez da nahikoa. Birziklatu eta berrerabili, ez bilatu atxakiarik, behin ohitura hartuta ez jaku ezer kostauko. Bailara guztitik zehar zaborra sailkatzeko era guztietako ontziak daukaguz, hainbat zerbitzu eta baita garbigunea be.

Hobetzeko daukagun beste alor bat konsumoa da. Euskal kostaldea ur azpian ikustea desatsegina izango balitz, pentsau egizue zein desatsegina izango litzateken Arratiako eta Euskal Herriko herriak komertzio txiki barik ikustea. Kaleak triste, dana hutsik eta edozer gauza erosi ahal izateko kotxea hartu eta merkatal gune handi eta itxietara joan behar izatea.

Bestalde, herriko komertzioetan konsumitzen badogu, kalidadezko produktuak, osasuntsuak eta ingurumenagazko errespetua daukienak eskuratuko doguz. Gainera, bertako merkataria eta ekizleai bultzada emongo deutsegu, herriko kaleak kolorez betez eta baita inguruko langabezi tasa jeitsi eta ekonomia egonkortuz. Merzidu dau ezta?

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endrean Batz gaitu

MONDRAGON 2022

LUMATUTEN



IZASKUN ATUTXA

Etorkizunean
aldaketa
sakonak egongo
dira gizartean

Asesinutako andrak, erdiesklabutan lan egiten daberen andrak eta La Manadaren epaiaren moduko epaiak, (libre ixten dabezanak gizonak bortxatzen urteko dirala WhatsApp baten idatzi, bortxatu eta bortxaketea bideoan grabatu ostean), inflexino-puntuak dira, kalean gizarte aldaketa sakona behar dala aldarrikatzen dauan gizartea irauli egin dabenak.

Baina datu honeek icebergen tontorra baino ez dira. Gizartearen antolaketea kolokan ipini da eta gizartea hasi da burrukan etxeko lanak bananduteko. Izan be, atzen ikerketen arabera, andrazkoak gizonak baino ordubete t'ardi gehiago egiten dabe etxeko lanak egiten; eta enpleguari ja-gokonean barriz, andrak kaltetutuen dauzan soldata-arrakala dago.

"Oihu egin ezin daberen ahotsak gara", "erresistentzia +

erresistentzia + iraultza +" "Geu bagara naziak, zergaitik gara hiltzen diranak?" "Ez, ezetz da, eta malgutasuna gura badozu, hartu yogak klaseak", martiaren 8aren manifestazioan ikusitako kartel batzuk dira. "Bizitza erdigunean" goiburutzat daukan egun batek aurre egin behar deutse semiesklabuta erregimenean dagozan etxe barruko langile batzuk egiten dituen zaintza lanai. Euretako batzuek parte hartu dabe *Mujeres no domesticadas* liburuan argitaratutako ikerketan, eta etxe barruko beharginaren figura desagertzea eskatzen dabe.

Martiaren 8 gehiago behar dogu urteko egun guztietan, fetxa horretan publiketan diralako proposamen gehien hedabideetan eta proposamen horreek gauzatu ezker, pausu barriak emongo doguzalako feminismoaren helburuak lortzeako. Izan be, gizartearen erantzun honen ondoren, mobimentu feministea, eragile politiko barri moduan finkatu da eta bere aldarrikapenak alderdi politikoen programetan agertzen dira.

Testuinguru honetan eta inork ez dauanean dudarik egiten feminismoa bardintasunagaz identifiketan dala, aita santuaren adierazpen batzuk agertu dira, esaten dabenak "feminismo guztiak gonadun marxismo" bilakatzen dirala. Beharbada, feminismo berbearen ordezeleiza berbea ipinten badogu definitzina zuzenagoa izango da, janzkera (sotana) kontuan hartuta. Seguruenik, Eleiza euren erakundeetan ezta bardintasan teorikorik be sartu ez dauan erakunde gitxien artean egongo da.

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Gogoaren lurrin hezeaz ase duzu nire nahia maitasuna, larrua edo beharizana desira eta irrika egunsentiko argitasuna gauaren gaizkide.

Zara benetakoa, gordina begi dardartekin begiratzen nauzunean zure ahotsa mututu egiten denean azala usaintzen didazunean sekretuak lurperatzen ditugunean.

Zara, filosofiaren zergaitia arrazoiaren egia hitzen esanahia musikaren melodia epelaren gozoa zentzuaren gidaria.

Gara begirunez lotutako adiskideak ametsen zaindari amodioaren jostunak errespetuaren epaile irriaren margolariak maitemina dantzari.

Izan nahi dut zure minaren sendabidea zorionaren gordeleku zure sutondoa, magala eta galduta zaudenean zure iparrorratza.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Martiaren 8aren inguruan aldarrikapen feministak ozen entzun dira Arratian, eta urtero legez, eskualdean antolatutako ekintza guztietan egon dira eta egongo dira Arratiako andrak. Aldarrikapenok, erdigunean zein periferian egin ditue, bizitzak erdigunean ipinteko.

Akaso erdigunea Arratia da eta periferia Bilbo eta Donostia. Edo alderantziz. Seguruenik ikuspuntu desbardinak dagoz, norberaren kokapenaren arabera. Holan ba, Arratian eta uriburuetan egon dira arratiarrak, milaka andrak batera, feminismoak daukan indarra erakusten. Bilboko manifestazio historikoan, berbarako. Han, 50.000 lagun baino gehiago batu ziran eta Arratiakoak be bertan egon ziran.

Donostian be baeukien beste hitzordu bat. Izan be, Lilatoiak, bardintasanaren aldeko lasterketarik mitikoenak 30 urte bete dituten. Eta han be Arratiako ordezkariak egon zan. Batzuek galapan egin eben, beste batzuek txalo, eta danak, andrazkoak ez dabela atzera pausurik egingo argi itxi eben.

Argazkian Lilatoira joandako arratiar batzuk.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa hagin klinikoa
Marina Uriagotia Aldekoa Odonatologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1, beheko
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA
Elexalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 54 62 - 808 884 018

begitu
amata ubide sobera

ARATUSTEAK

Aratusteak, beste bizitza batzuk biziteko aukerea

Arratiarrak irudimen handiko mozorroak jantzi eta kaleetara urten ziran aurtengo giro epeleko Aratusteetan. Mozorroak soinean, egunerokoa bazterrean itxi eta mundu barriak amestu eta bizi izan dabez egunotan umore onean.



Artea.



Igorre.



Igorre.



Arantzazu.



Dima.



Areatza.



Arantzazu.



Areatza.



Bedia.



Zeberio.



Dima.



Zeberio.



Lemoa.



Lemoa.



Zeanuri.



Zeanuri.



Bedia.

Laburbira

Euskarazko film laburren XVI. zirkuitua - 2019
Martxoaren 18tik apirilaren 17ra

www.topagunea.eus/laburbira

 BEGI NINEN KOREOGRAFIA Aritz Fernandez	 SHELL PHONE Miren Mujika	 ZAPATAK Irati Murua
 AMA Josu Martinez	 JUNE Aranza Ibarra	 HOTZEAN GARBITU Maddi Barrenechea eta Marta Tejada
 ILUNPEAN Iker Magorregi eta Andrea Martinez	 ERROAK Ane Zuzenbarkar	 HANDIAK ETA TXIKIAK Laida Rite

TOKIA:
Areatzako Udal Aretoa

EGUNA: **Martiak 29, barikua** **ORDUA:** **19:30**

ANTOLATZAILEA:
Zertu Kultur Elkarteak · Areatzako Udala

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzailea

MENDIA



Arginatx barriztu batek hamar urte beteko ditu

Arantzazuko Arginatx alkartea 2009ko bagilean sortu zan, herriari bizitasuna emoteko helburuagaz mendirako urtenaldiak sortzeako. Hamar urte honeetan, mendi ibilaldiak eta ekintzak jaietan antolatu ditue. 2019ko urtailaren 18an, Zuzendaritza Batzordea barriztu eta gazteak hartu eben, oin artekoari jarraipena emon eta proiektu barriak abiatzeko.

Erredakzioa

Arantzazuko biztanleriaren herena, Arginatxeko bazkide da. Luis Manuel Uriarte izan da Arginatxeko presidentea 2019ra arte eta Maite Revillak hartu dau haren lekukoa zuzendaritza barrian.

Arginatx Mendi Elkartea oin hamar urte sortu zan. "Egun baten lauzpabost lagun batu ginan herrian zerbaist egiteko asmoagaz eta mendira urtekerak egitea izango zala onena ebatzi genduan. Mendi ibilaldiak, txangoak... Eta Arginatx Mendi Elkartea sortu genduan. Lehenengo batzarra 2009ko bagilaren 19an izan zan" azaldu deutso BEGITURI Uriartek. Ez da klub bat, alkarte bat baino eta horregaitik ezin dabe jentea federatu.

Zuzendaritza barria

Taldeari "gatz eta piper" apur bat falta jakola eretxita, Zuzendaritza Batzordekoak Batzar Orokor ez ohikoa deitu eben, dimisinoa emoteko. Batzar haretan, Maite Revillak taldea bertan behera geratzea penea izango zala eretxita eta gazteak zuzendaritza harzteako prest egozala jakitun zala,

aurkeztu zan alkarteko presidente izateko. "Gero, prest egozan gazteak sortu dogu Zuzendaritza Batzorde barria. Zazpi gara, 20 eta 34 urte bitartekoak. Neu naz neska bakarra" dino Revillak.

Kide barriak hainbat barrikuntza ekarri dabe daborduko: logo barria, webgunea, sare sozialetan presentzia... eta gauza desbardinak egin gura dabez. "Gorbeia gauze joan, esate baterako. Etor-kizunari begira, herritarrek federatu gura dabenez, alkarte klub bihurtu behar izango dogu, trami-te asko egin behar izango dira".

Edadekoak pozik dagoz, oin mendi ibilaldietara gazteak be joaten diralako.

Arginatx mendi talde bat baino gehiago

Herriko jentek alkarren arteko hartu-emonak izaten lagunduteko sortu zan Arginatx eta bizitasun handia emon deusala herriari dinoe oingo presidentek eta aurrekoak. Mendi ibilaldiak eta txangoez gainera, sano modu aktiboan hartzean dabe parte jaietan, sanjuanetan eta abar, ekintzak antolatuz.

MENDIA

Bilbao Mendi Film Festivaleko onena Igorren

Aurten be, Ganzabal Mendi Taldeak, Mendi Amesgarriak saioetarako, 2018an Bilboko Mendi Film Festivalen izandako pelikularik onenak ekarriko ditu Igorrera. Saio bi izango dira.

Erredakzioa

Lehenengoan, martiaren 22an, *Viacruxis* 2018ko film labur onena eta *The Dawn Wall*, epaimahaia- ren saria ikusi ahal izango dira. Hurrengo barikuan, hilak 29, *Wallmapu*, *Notes From The Wall* eta *This Mountain Life* sail ofizialeko filmak egongo dira ikusgai. Emonaldi biak 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan izango dira.

Viacruxis Ignasi Lopezen 11 minutuko animaziozko filma da. Marcel eta Andrej mendizaleen istorioa kontetan dau. Mendirik altuenak eta gatxenak igon ditue eta izakera sano desbardinak izan arren, inork zapaldu ez dauan mendirik altuenaren tontorra zapaltzeko erronkeari egin behar deusie aurre.

Horren ondoren *The Dawn Wall* dokumental luzea proiektatu da. 2015ean, Tom Caldwell eta Kevin Jorgesonek Yosemite parkean dagoan ia kilometro bateko paretan

eskalau eben. Eskalatzailak paretean bizi izan ziran hainbat astetan. Caldwellek paretan hori eskalatzegaz 7 urtez izan eban obsesinoa be kontetan da filmari. Josh Lowell eta Peter Mortimer dira film honen zuzendariak.

Bigarren saioa

Martiaren 29an, hiru pieza ikusteko aukerea egongo da. Lehenengo, sei minutuko *Wallmapu* film laburra. *Wallmapu* maputxe nazi-noaren lurraldea da. Ben Sturgulewskik zuzendutako AEBko film honek Txileko sumendi handi bat erakutsiko dau. Han eskiatzaileen modernitatea eta pehuenche, Andeetako herri indigenearen bizimodu eta mundu ikuskereak bat egiten dabe.

Ondoren *Notes From The Wall* Siebe Vanhee eta Guillaume Lionek zuzendutako 35 minutuko filmaren txandea izango da. Hau be Txilen grabata dago. Sean Villanueva,

Nicolas Favrese eta Siebe Vanhee, Patagonian dagoan "El regalo de Mwonon" eskalatzeko saiatuko dira. Horma handi gatxenetakoa da eta filmari ez dira faltauko umorea, musika eta laguntasuna.

Saioari amaiera emongo deutso Kanadako produktzio batek, Grant Baldwin zuzendutako *This Mountain Life*, hain zuzen be. Filmak 77 minutuko iraupena dauka eta Martina eta 60 urteko Tania amaren Kanadako mendietan zeharreko eski zeharkaldia kontetan dau. Paraje ederrak eta personaje interesgarriak agertuko dira abentura honetan.

Mendirik Mendi argazki erakusketea

Lasarte Aretoan, apirilaren 4ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako *Mendirik Mendi* argazki erakusketea egongo da. Mendi talde honetako bazkideak, euren urtekeretan egindako argazkiak dira.



MENDIA

Nardi eta Ballard en errekestean izan da Txikon

Erredakzioa

Martiaren 10ean, Alex Txikon Bigarren Kanpalekura bueltau zan, astebe Nanga Parbat ibili ostean, Daniele Nardi eta Tom Ballard bila. Nardi eta Ballard-en arrastoa galdu zan eta Txikon eta bere taldekide batzuek erreskate lanetan parte hartu eben. Zoritxarrez, hilda aurkitu ebezan mendizale biak.

Nanga Parbat-etik K2a neguan igoteko asmoagaz bueltau da lemoaztarra Bigarren Kanpalekura. Egun gitxi geratzen dira negua amaitu eta udabarria heltzeako eta ikusi egin beharko da egun horreetan eguraldiak aukerea emoten dauan tontorrerako saiakerea egiteko.

Oztopoak oztopo

Eguraldiak lagundu arren be, gatxeukiko dabe Txikon eta espedi-

zinokideak tontorrera heltzeako. Izan be, taldea ez da 6.700 metrotik gora izan eta horrek esan gura dau lan asko dagoala oindino ibilbide guztia ekipetako. Gainera, 7.000 metrotik gora ez diranez egon, klimatazinoa behar izango leuki tontorreko 8.611 metrotara igoteko.

Espedizinokideak

Txikon Nanga Parbat egoan bitartean, espedizinokide bat joan behar izan zan izozte batzuk osatzeko. Hori dala eta, Txikonez gainera, Felix Criado, Nuri, Chhepal, Geljen, Wallung eta Pasang dira espedizinokideak momentu honetan.

K2ko tontorra egiten saiatzen egoan beste espedizinokide saiakere bertan behera ixtea ebatzi dau. Mendizale errusiarrak, kazakhstan-darrak eta kirgizistandarrak osotuten eben espedizinoa.

PELOTEA

Hirugarren finalaurrekoa Mallabian

Erredakzioa

Binakako Promozinoko Txapelketan sano ondo dabilz Aitor Elordi eta Oier Etxebarria pelotari igorretarra. Izan be, finalerdietan jokaturako partidu biak irabazi dabez. Mallabian jokaturako dabe finalerdietako atzen partidua martiaren 15ean Ugalde eta Jaunarenaren kontra.

Lau bikote sailkatu ziran finalerdietarako: Elordi eta O. Etxebarria, Agirre eta Salaverri, P. Etxeberria eta Garmendia eta Ugalde eta Jaunarena. Finalerdietan, Agirre eta Salaverri irabazi eutseen Elordi eta O. Etxebarriak 18-22 Iruñean, hilaren 2an jokaturako partiduan. Hurrengo partidua, Eibarren jokatu eben, 10ean, eta 22-21 nagusitu jakien P. Etxeberria eta Garmendiari. Finalera sailkatzeko atzen proba Mallabian izango dabe Ugalde eta Jaunarenaren kontra.

Finala martiaren 31n jokaturako da.

MENDIA

Kolazinoko Mendi Egunaren bosgarren edizinoa hilaren 23an



Erredakzioa

Tiritu Kultur taldeak antolatutako Kolazinoko Mendi Egunaren V. edizinoa martiaren 23an izango da. Bertan 500 kirolari inguruk hartuko dabe parte, lasterketa, ibilaldi eta bizikletako probetan. Lasterketea Euskal Mendizale Federazinoko rankingerako puntugarria da.

Lehenengoak urteten mendi ibilaldiko partaideak izango dira. Honeek 08:00etan abiatuko dira plazatik 20 kilometroko ibilbidea egiteko. Hurrengoak, BTT lasterketako bizikletariak izango dira; 09:00etan urtengo dira 34 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboko ibilbidea egiteko. Beste batzuen artean, lau aldiz lasterketa hau irabazi dauan Julen Zubero, 2017ko irabazlea Alexander Ordeñana, behin irabazi eta beste behin bigarren izan dan Zuriñe Frutos edo Jessica Hernandez txirindulari ezagunak izango dira bertan.

Onoren, proba nagusiaren txandea izango da, mendi lasterketearena, hain zuzen be. Lasterketea, 10:00etan hasiko da; ibilbideak 24 kilometro ditu eta 1.500 metroko desnibel positiboa. Inoz baino gogorragoa. Aurtengoan Euskal Mendizale Federazinoko rankingerako puntuagarri izateaz gainera, Bizkaiko Mendizale Federazinoko antolatuten dauan ligearren parte be bada. Partaideen artean, Oihana Azkorbebeitia, Igone Campos edo Onditz Iturbe igorretarra egongo dira. Baita, Xabi Lete, Beñat Katarain edo Aingeru Artetxe arratiarra be.

Atzenengo proba, Junior eta Kadeteentzako mendi lasterketea

izango da. Gaztetxoak 10:30ean urtengo dira plazatik 15 kilometroko karrera egiteko.

Egun osoko jaia

Aurreko edizioetan lez, Kolazinoko Mendi Eguna dala eta, jaigiroa izango da nagusi Bedian. Mendi lasterketa edo martxako partaideak, eurekaz joandakoak eta gura daben guztiak alkarregaz bazkaltzeko aukerea izango dabe. Horretarako, helmuga ondoko txosnan erosi ahal izango dabez bazkarirako tiketak.

Umeentzako jolasak, puzgarriak eta ekintzak egongo dira egun osoan zehar eta arrasti-iluntze partean erromeria egongo da.

Mendi lasterketarien mahai-ingurua

Bezperan, hilak 22, 19:00etan Bediako Liburutegian, Oihana Azkorbebeitiak, Ainhoa Lendinezek eta Igone Camposek andrazkoak, kirola eta euskerearen inguruan egingo dabe berba. Hirurak dira ezagunak Euskal Herrian zein nazioarteko mailan mendi lasterketan lortutako emaitzakaitik.

Izan be, Oihana Azkorbebeitia abadinoztarra mendiko lasterketak egiten hasi zantetik lortutako txapelak kontaezinak dira; tartean dagoz, Espainiako Kilometro Bertikaleko Txapelketea eta Lemoatx Trail 2018an. Ainhoa Lendinez Elgoibarko EITBko kazetariak, sano emaitza onak izan ditu mendi lasterketetan eta Azkorbebeitia legez, Euskal Selekzioan dago. Igone Campos mendi lasterketaria izateaz gainera, eskiatzailea be bada eta zezeilaren 23an, Euskal Herriko mendiko eskiko Txapelketea irabazi eban.

AZKOREA

Urrezko txapelik ez arratiarrentzat

Erredakzioa

Martiaren 2an jokatu ziran Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan Urrezko Aizkorako finalak. Gizonzkoen binakakoan, Aitzol Atutxa Dimakoak eta Julen Alberdik osotutako bikoteak bigarren egin eban. Txapela, Vicente eta Saralegiarentzat izan zan. Andrazkoetan, Banakako finalean, Zeanuriko Irati Astondoak hirugarren egin eban, Maika Aristegiren atzetik. Txapela, Nerea Sorondorentzat izan zan.

Iker Vicente eta Ruben Saralegi nafarrak ziran igazko txapeldunak eta faboritoak, eta probearen hasikeratik ipini ziran aurrean. Lan guztiak egiteko 27 minutu eta 9 segundoko denporea behar izan eban; Atuxak eta Alberdik barriz

28 minutu eta 16 segundo.

Emakumeen Urrezko Banakako Txapelketan be, txapela jantzi ebana zan faborito nagusia. Nerea Sorondok 6 minutu eta 33 segundoko denporan amaitu eban lana. Maika Aristegik 7 minutu eta 41 segundo behar izan ebazan eta Irati Astondoak 8 mi-

Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketea

Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketako bigarren kanporaketea jokatu da martiaren 16an Ubideko pelotalekuan, arrastiko 18:00etatik aurrera.

Bertan 12 aizkolari neurtuko dira eta bi baino ez dira sailkatuko hurrengo faserako. Lehia-



tuko diranen artean arratiar bakarra dago, Xabier Garcia "Utxu" lemoztarra, hain zuzen be.

SAN JOSETAKO BERTSO SAIOA

Igorreko kultur etxean

martiak 19, martitzena
arrastiko 18:00etan

ANDONI
EGAÑA

ONINTZA
ENBEITA

UNAI
ITURRIAGA

NEREA
IBARZABAL



LABURBIRA

Euskerazko film laburrak Areatza, Dima eta Igorren proiektuak dira Laburbiraren XVI. edizinoan

Martiaren 18tik aprilaren 17ra, Laburbiraren XVI. edizinoan euskeraz egindako 9 film labur ikusi ahal izango dira Areatzan, Diman, Igorren eta beste 32 herritan.

Erredakzioa

Diman eta Areatzan, martiaren 29an proiektuak dira. Diman, 19:00etan, eskolan eta Areatzan, 19:30ean, Udaleko Aretoko Nagusian. Igorren, emonaldia aprilaren 11n izango da, Kultur Etxean iluntzeko 20:00etan. Zertu Kultur Elkarteak antolatuta ditu emonaldioak Areatza eta Igorreko Udalen laguntzeagaz eta Dimako Udalak Diman.

Edizino honetan hurrengo filmak egongo dira ikusgai: Arrate Fernandez *Begi-ninien koreografia*; Miren Mujikaren *Shell Phone*; Irati Muruaren *Zapatak*; Josu Martinezen *Ama*; Arantza Ibarren *June*; Maddi Barreneitea eta Marta Teijeiraren *Hotzean garbitu*; Iker Maguregi eta

Andrea Martinezen *Ilunpean*; Ane Zuazubiskarren *Erroak* eta Laida Ruizen *Handiak eta txikiak*.

Film guztiak 2016 eta 2018 bitartean egindakoak dira. "Maitasun istorioak, tensino bizikoak, animaziozko lan bi, iraganeko kontakizunen bat, Behe Nafarroko istorio bat, magia, intrigea eta umorea dira, besteak beste, aurtengoak dakarrena" dinoe antolatzaileak.

Laburbira

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen dau Laburbira zirkuitu ibiltaria helburu bigaz: "euskeraz egindako sortzaileen film laburrak ezetuten emotea eta ikusleai ordubete inguruko proiektuzino entretenigarri batez gozatu arazotea".



Hotzean garbitu filmaren irudia.

MUSIKEA

Larregi taldearen bideo barria ikusgai Youtuben

Erredakzioa

Larregi taldeak, *Bide bat* bere kantarik zaharrena grabatu eta bideo barria argitaratu dau. Argitaratu eben lehen laneko lehen abestia da *Bide bat*; baita hamar urte beteten ziranean argitaratutako *Loreak desertuan* diskoaren atzena be. Kantu honek Lemoako taldearen hamarkada bat zabaldu eta zarratu egin dau beraz.

Oin grabatu daben bersinoak, igaz argitaratutakoak da; bersino akustikoa eta hasikerakoa baino lasaiagoa.

Larregi taldea Unai Santosek (gitarra eta abotsa), Iñigo Santosek (bajua eta kora) eta Gontzal Hocesek (bateria) osotuten dabe. Bersino honetan, Ane Goienetxe pianojole lemoztarra, eta, gitarra elektrikoa jotzen, Desore taldeko Endika Parraren kolaborazioak izan dabez.

Bideoa North Movi enpresek egin dau eta Youtuben ikusi daiteke.

Hamar urteko bidea

Bide bat kantua berezia da Larregikoentzat ez bakarrik maketako

ANTZERKIA

Erradikalak gara ikuskizuna Arantzazun



Erredakzioa

Ez da ez lehenengo aldia, ezta bigarrena be, Beatriz Egizabal aktore eta ipuin kontalaria eta Ane Labaka bertsolariak *Erradikalak gara* ikuskizuna Arratiara ekarten dabena. Martiaren 16an, iluntzeko 19:30ean egongo da Arantzazuko Kultur Gunean.

Ikuskizunak bertsoak eta bakarriketat batzean ditu eta, umorez, ikuspegi feminista batetik, gizarte honen kontraesanak ipintzen ditu begien aurrean. Ekintza hau martiaren 8ko Andren Nazinoarteko Egunaren inguruko programazio barruan dago.

Labakak eta Egizabalek, bertsoa oinarri daukien emonaldi barriak sortzeako lehenengo Lanku Beke irabazi eben *Erradikalak gara* proiektua garatuteko. 2017an estrenau eben eta harrezkerotik Euskal Herriko hainbat herritan taularatu dabe arrakasta handiz.

KONTZERTUAK

Izaki Gardenak eta Duluth Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Iluntzeko 20:30ean zabalduko ditu ateak Igorreko Kiñu Gaztetxeak, Izaki Gardenak eta Duluth taldeak martiaren 15ean eskainiko dabezan kontzertuetarako.

Izaki Gardenak pop-rock musika taldea 2012an sortu zan Gasteizen eta daborduko bost disko ditue kalean: *Itsasargiak* (Oihuka, 2012), *Amaieratik hasi* (Oihuka, 2013), *Aurri gara* (Oihuka, 2015), *Oinak lurtean* (Elkar, 2017) eta *Dena oskol* (Erraia, 2018). Jon Basaguren, Libe Garcia de Cortazar, Dani Arrizabalaga, Fede Eguiluz eta Danilo Forondak osotuten dabe taldea.

Duluth be Gasteizko taldea da. 2017ko urrietan sortu zan eta Aitor Aguirrek, Ander Sevillak, Asier Erdozainek eta Jon Salvadorrek osotuten dabe taldea. "Rock intimista eta introspektiboa" egiten dabe.

Sarrerak salgai

Kiñu Gaztetxean emongo daben kontzerturako sarrerak, Igorreko Herriko Tabernan, Kukuman, Txaparro jatetxean eta Gau Lora akeitegian erosi daitezke 5 euroko prezioan. Baita online be, *izaki-gardenak.com* webgunean.



ZINEA

Zinegoak zinemaldiko sei film labur ikusteko aukerea Igorren

Erredakzioa

Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans 16. Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiko sei film labur ikusteko aukerea egongo da martiaren 15ean, arrastiko 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretuan. Filmok, *Anders*, *Vidi Ja Ti Nea*, *Devi*, *Malik*, *Oasis* eta *Nomeolvides* dira. Sei film labur, munduko sei lekutako istorioak kontetan dabenak.

Anders Reinout Hellenthalek 2017an zuzendutako, hamazortzi mintu t'erdiko filma da. Alex nerabe problematikoaen istorioa kontetan dau. Niderlanderaz dago euskeraz eta gaztelaniazko azpitoluakaz.

Vidi Ja Ti Nea (Begiratuko zenioke?) pelikulea Goran Stolevski mazedoniarrek zuzendutako filmak neska marimutil bat dauka protagonistatzat. Jatorrizko bersinoan, euskeraz eta gaztelaniazko azpitoluakaz ikusi ahal izango da.

Hurrengo pelikulea, hindiera, bengalera eta ingelesez dago. Karishma Dev Dub-ek zuzendutako *Devi* (Jainkosa) da. New Delhin girotutako film labur honek, gaur egun Indian lesbiana izatea eta armairuan bizitearen errealida-

dea aztertuten dau.

Malik, Nathan Carlik 2018an zuzendutako 15 minutuko produkzio frantziarra da. Frantsesez dago, euskera eta gaztelaniazko azpitoluakaz. Alejandro Zuno zuzendari mexikarraren *Oasis* pelikulan, Ofelia, Oasis izeneko gay tabernara doa bere senarraren bila. Gaztelaniaz dago eta ingelesezko azpitoluak ditu.

Amaitzeko, Ferran Navarro-Beltran espainiarraren *Nomeolvides* film laburrak kanposantuan topo egiten daben Irene eta Luisa 70 urteko andren istorioa kontetan dau gaztelaniaz.



ANTZERKIA

Ados Teatrok James Joyceren *Dublindarrak* narrazino laburren egokitzapena taularatuko dau Lasarte Aretoan



Dublindarrak.

Erredakzioa

Martiaren 16an, 20:00etan, Garbi Losadaren zuzendaritzapean, Asier Hormazak, Naiara Arnedok, Lierni Fresnedok, Iñake Irastorzak, Klara Mendizabalek, Isidoro Fernandezek, Aitor Beltranek eta Asier Sotak James Joycek sortutako pertsonajeak antzeztuko dabez Igorreko Lasarte Aretoan. Joyceren *Dublindarrak* narrazinoen egokitzapena Jose Antonio Vitoria eta Garbi Losadak egin dabe.

Dublindarrak Dublinen kokatzen da 1904ko Errege egunean. Irlandak garai hartan bizi eban paralis moral eta espiritual dauka berbagai. Kontakizun honetan, Morkan andereñoak urtero antolatzen daben afarira maila ertainaltuko pertsonaje batzuk doaz. Etxe-giro goxoa da eta umorea ona. Baina hilda dagoz, pasinoz biziten jakin ez dabenak, jolasetan galdu diranak eta euren mundua jausi eta erremedio barik atzetik jausi diranak hilda dagozalako.

BERTSOAK

Egaña, Enbeita, Ibarzabal eta Iturriaga Igorreko San Josetako bertso saioan

Erredakzioa

Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga, izango dira aurtengo Igorreko San Josetako bertso saioan bertso jardungo daben lau bertsolariak. Bertsozaleak, hilaren 19an, arrastiko seiretan daukie zitea Igorreko Kultur Etxean.

Urtero lez, bertsolari handiak eta Arratian askotan izandakoak iragarri dabez antolatzaileak udabarri ateetan izaten dan euskaldek bertsozaleakazko zita honetarako.

Bertsoan izango da Andoni Egaña zarauztar beteranoa. Egaña, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia lau aldiz jarraian irabazi dauan bertsolari bakarra da; 1993an, 1997an, 2001ean eta 2005ean, hain zuzen be. Idazle ezaguna be bada eta literaturan eta kazetaritzan esparru desbardinak landu ditu eta Euskaltzain urgazlea da.

Onintza Enbeita (Muxika, 1979) umetatik hasi zan bertsoan eta 2006an heldu zan lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera. 2005, 2009, 2013 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu eban parte. Bertsolaria izateaz gainera, euskera irakaslea, kazetaria eta politikaria be bada. Berrian idazten dau eta Espainiako Diputaduen Kongresuan diputadua izan zan 2012tik

2016ra arte.

Nerea Ibarzabal da laukote honetan gazteena (Markina-Xemein, 1994). Bertsolaria eta kazetaria da eta 2018an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartu eban eta bota eban bertso bat birala bihurtu zan. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian, finalaurrekora heldu zan.

Laukotea osotuteko Unai Iturri-

ga durangarra eta San Josetako bertso saioetako ohikoa egongo da. Iturriagak ibilbide garrantzitsua egin dau bertsolarietan, literaturan eta musikan. Bitan izan da Bizkaiko txapeldun eta Bertsolari Txapelketa Nagusietan, sei aldiz izan da finalista. Musika arloan, Igor Elortzagaz eta Josu Zabalagaz batera 7 Eskale eta Gu ta gutarrak taldeak osatu ditu.

Bizkaiko Taldekakoa Txapelketako saioa Igorren

Aramotzetik Itxinera Arratiako taldea neurtuko da bertsoan, Berriz-Elorrioko Miotako Bidelapurak eta Santutxuko Otsoa & Co. taldeakaz Igorren, martiaren 23an, arrastiko 19:00etan. Kanporaketea Igorreko hiru tabernatan jotatuko da.

Saioan, talde bakoitxeko sei partaide egon behar dira: hiru bertsolari, gai-jartzailea, epailea eta laguntzailea, hain zuzen be. Hiru talde izaten dira lehia kanporaketetan, eta saio bakoitxeko puntuetako hiru epaileen balorazioa eta publikoaren eretxia hartuten dira kontuan. Danan artean



ebatziko dabe ze taldek egingo dauan aurrera; hau da zein sailkatuko dan hurrengo faserako.

Aramotzetik Itxinera

Iñaki Iturriotz, Illart Gumuzio, Igor Menika, Juanjo Respaldiza, Kattalin Burgoa, Olatz Urigoitia, Jesus Angel Santa Cruz, Irati Santa Cruz, Garazi Santa Cruz, Amaiur Atxa eta Maddi Zabalok osotuten dabe Aramotzetik Itxinera Arratiako taldea. Igorreko kanporaketan sei lagunek hartuko dabe parte; esandako moduan, hiru bertsolari, gai-jartzaile batek, epaile batek eta laguntzaile batek. Nortzuk izango diran, zehaztu barik dago. "Danok edo gehienok agertuko gara eta ebatziko dogu" azaldu deutso BEGITURI Illart Gumuzio taldek bertsolariak.

DUNBA

Gure kulturatik edaten dogu!

Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

Gure hizkuntza zaharretik beti barri dan euskerea erabilten jarraituteko, aurtan 5. mailako ikasleak euskal kultura landuten egon gara. Euskerea gure herriaren bihotza dalako. Gure kultureagaz lotura daukien pertsona batzuen gaineko lan monografikoak egin doguz: Txillardegia, Bixenta Mogel, Azkue, Miren Amuriza, B. Atxaga, Amets Arzallus, M. Lujanbio, Eider Rodríguez, X. Lete, B. Etxepare, Maurizia eta Leon, Anari, G. Aresti, Uxue Alberdi... Pertsonaje honek antzerki bat sortu eta gabonetan eskolan antzeztu genduan.

Zezeilan, Asier Altuna zinema zuzendaria be gure eskolan egon

zan eta beragaz Euskal zinemari buruzko berbaldi polit bat antolatu genduan. Film labur batzuk ikusi...

Aprilean be, Juan Kruz Igerabide idazlea Zeanuriko eskolara etorriko da. Gelan berak idatzitako liburu bat irakurten gabiz eta berarentzako be sorpresatxo bat prestatuko dogu.

Dana dala, eskolan Euskal kulturearen gaian sakontzeko Mikel Laboa eta Joxanton Artze omentzea eta gogora ekartea izan dogu atxakia. Bien lanak landu eta aztertu ostean, omenaldi bat egin deutsegu. Artzeren olerkiak eta Laboaren doinuak erabiliz, Zeanuriko argazki zaharrak batu eta bideo bana sortu eta editatu genduan. Gero bideoak, Youtubera igo genduzan; *Zeanuritik Mikel*



Laboarentzat eta *Zeanuritik Joxanton Artzerentzat* izenekoak. Itzela izan da artista honek biak Euskal kulturaren egin daben ekarpena eta sortu daben mundu magiko, eder, sakon eta zabala.

Maite doguz maite gure bazterrak lanbroak... eta ee, zuek ahobi-

ziak! Oin dala gitxi Euskaraldia joan jakun bezala laster korrika jotorku! Beraz, gure arbasoak egin eben lez, danok batera lagundu dagiogun gure egunerokotasunean euskerari hegoak zabaltzen. Euskeraz berba eginez, lan egin, jolastu, ikasi, lagundu eta gozatu.



"Ama, aita esaidazue, zergatik ote da uda nahiz negu, beti udabarri zerualdean, gauean oskarbi dagoenan?". (Artze)

"Gauero itzaltzen da gizakumea, goizero bizten, eta bien bitartean amets du egiten.

Goizero bizten da, Gauero itzaltzen, eta bien bitartean amets bat du bizitzen". (Artze)

AGENDEA

MARTIAK 14

ARTEA

16:00etatik 19:00etara, martiaren 18ra arte, *Izadi sublimea* erakusketea Kultur Etxeko areto nagusian.

Torontilek antolatuta, martiaren 22 eta 29an eta apirilaren 5 eta 12an 18:00etatik 21:00etara Mataderoan egingo dan *Serigrafia* ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Izen emotea totontile@gmail.com edo 622 390 883 telefonoan. Saio 1, 50 euro, 65 euro saio bi eta 75 euro hiru saio.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, garagarrilaren 1etik 12ra izango dan Txiki Txokorako, Udalekuetarako eta garagarrilaren 14tik 24ra izango dan "Bediako Uda Gaztean" en izen emotea Liburutegian.

Hilaren 18ra arte, Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketetan izena emon daiteke www.kolazinokomendieguna.com webgunean.

DIMA

Hilaren 17ra arte, Jaietako Pelota Txapelketan izena emoteko epea 688 653 473 telefonoan.

19:00etan, Korrika Batzordearen batzarra udaletxean.

IGORRE

11:30ean, XXVII. Bertsolari Gazteen BBK Sarieteari Igorreko Arratia Institutuan. Arratia-Hego Uribe.

Apirilaren 1era arte, Ganzabal Mendi Taldearen *Mendirik Mendi* argazki erakusketea Lasarte Aretoan.

Apirilaren 2ra arte, apirilaren 28tik maiatzaren 7ra arteko Fiteroko bainuetxean egonaldia eta tratametuatarako izena emoteko epea jubiladuen txokoa.

MARTIAK 15

AREATZA

17:00etatik 20:00etara, Andren Jabekuntza Eskolako *Maitasun erromantikoa vs maitasun askea* tailerra Josebe Iturrioren eskutik. Udal Aretoan.

ARTEA

17:30etik 19:00etara, Jubiladuen alkarteak, Udalak, Arteako eskoleak, IHOBEK, Udalsarea 21ek, Bizkaioak-ek, Arteako Herriko Bentak eta Guraso Elkarteak antolatuta, *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroa jubiladuen egoitzan.

BEDIA

18:15ean, 19ra arte, urtekerea eskiatzera Baqueira Bertera. Autobus geralekuan.

IGORRE

08:15ean, Gurutze Gorriak antolatutako mendia ibilaldia jubiladuentzat. Zumeltza-Zuhaitztxea-Ubide. Dimako autobusaren geralekuan.

20:00etan, Zinegoak, Bilboko Gaylesbitrans 16. Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiko sei film labor Lasarte Aretoan.



20:30ean, atek zabald. Izaki Gardenak eta Duluth taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, Eguzkiolak antolatutako berbaldia *Denontzako feminismoa %99rentzako* FeministAldeko Anabel Sanzen eskutik Eguzkiolan.



MARTIAK 16

ARANTZAZU

19:30ean, *Erradiakal gara* umorezko ikuskizuna Kultur Gunean.

AREATZA

Parketxeak antolatuta, Ibilbide didaktikoa: Life Oreka Mendien proiektuagaz lotutako urtekerea Arrabako zelaietara, Amador Prieto botanikoagaz. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikastaroa *Maitasun erromantikoa vs maitasun askea* Josebe Iturrioren eskutik. Udal Aretoan.

IGORRE

20:00etan, Ados Teatroa konpainiaren *Dublindarrak* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:00etatik 14:00etara, *Hiri-Baratzeaintza* tailer trinkoa. Lorezaintza eta ortuen sorrera ebexerako (hormetan, balkoietan, terrazetan...) Elizondo Kulturgunean.

Bulkada berrien garaia da! eguna.

15:00etan, bazkaria; ostean, Aissa Intxausti eta Xabat Galleitebeitia bertsolariak; 17:30ean, eskulan tailerra; 19:00etan, mobilizazioa eta ostean Baffle-poteo-kartelada eta kantu poteoa; 22:00etan, Etabar taldearen kontzertua eta Runto Selektorra Dj-a Gaztetxean. Bazkarirako tiketak erosteko atzen eguna. Igorreko Herriko Tabernan, Lemoako Karabie Gaztetxean eta Dimako Axlor Tabernan salgai.

ZEANURI

Joko Alaik antolatuta, sagardotegira urtekerea.

MARTIAK 17

IGORRE

17:00etan, zinea *Dragon Ball Super Broly*; 19:30ean, *Destroyer* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 19

IGORRE

18:00etan, San Josetako Bertso Saioa. Bertsolariak: Andoni Egaña, Onintze Enbeita, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga Kultur Etxean.

MARTIAK 20

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia jubiladuen alkarteak antolatuta, *Arnasketa eta bere onurak* berbaldia. Hizlaria: Graci Chacon.

MARTIAK 21

LEMOA

19:00etan, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek antolatuta, Juan Hernandezen *De la necropolítica al neofascismo* berbaldia eta M5aren aurkezpena Lemoako Kulturgunean.

MARTIAK 22

AREATZA

18:30ean, berbaldi tailerra *Ondo maite nazazu komikia* aztergai Skolastikako Josune Muñozen eskutik. Udal Aretoan.

17:00etan, 2002-2003 urteetan jaiotakoentzat, garagarrilaren 16tik 23ra Europako uriburu batera egingo daben biajea dala eta, batzarra. Pleno aretoan.

ARTEA

18:00etan, Torontilek antolatuta, *Serigrafia* ikastaroa Mataderoan.



Flamenkoa euskeraz Lasarte Aretoan

Martiaren 23an, 21:30ean, Sonakay taldeak emonaldia eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan.

Talde donostiarrak, harrituta itxi eban mundu guztia, Telecincoko Got Talent saioan, *Txoria txori* kantuen moldaketa flamenkoa egin eban. Ondoren disko bat argitaratu dabe *Sonakay denontzat* izenekoa eta bertan lau euskal kanturen moldaketak dagoz: Benito Lertxundiren *Loretxoa*; Urkoren *Lehenengo ikasgaia*; Pier Paul Berzaitzen *Denborareki* eta Laboaren *Txoria txori*.

17:30etik 19:00etara, Jubiladuen alkarteak, Udalak, Arteako eskoleak, IHOBEK, Udalsarea 21ek, Bizkaioak-ek, Arteako Herriko Bentak eta Guraso Elkarteak antolatuta, *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroa jubiladuen egoitzan.

BEDIA

19:00etan, mahai-ingurua *Emakumea, euskara eta kirola*. Hizlariak: Oihana Azkorbebeitia, Euskal Herriko txapelduna mendia lasterketetan, Ainhoa Lendinez eta Igone Campos Pyrennes stage run lasterketako irabazleak. Liburutegian.

DIMA

18:00etatik aurrera, ume eta gazteen 3. asanbladea Dimesten-en eskutik. 18:00etatik 19:00etara, 2014 eta 2006 bitartean jaiotakoak (biak barne); 20:30etik 21:30era, 2006 eta 2001 bitartean jaiotakoak (biak barne).

IGORRE

19:30ean Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak, Bilbao Mendi Film Festivaleko filmak. *Viacruxis* eta *The Dawn Wall* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 23

ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta, mendia urtekerea Errieltabasa.

AREATZA

19:00etan, Areata Musik & Beer-en aurkezpena Aldamin tabernan. Ostean garagardoa kata musikatu tabernetatik Detractors taldeagaz; 22:00etan, The Riff Truckers taldearen kontzertua Bixer tabernan. Katarako txartelak 10 euroan salgai Motxo tabernan.



BEDIA

V. Kolazinoko Mendi Eguna. 08:00etan, Mendi Martxea; 09:00etan, BTT Lasterketea; 10:00etan, Mendi Lasterketea; 10:30ean, Junior/Kadete Mendi Lasterketea herriko plazatik urtenda. Jolasak, puzgarriak eta ekintzak umeentzat. Iluntzean erromeria.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekerea. Korrikaren aldeko mendia ibilaldia. Altungana (765 m.).

ZEANURI

19:00etan, berbaldia *Iruña-Veleia: zergaitik ez dabe argitu gura?* Kultur Etxean.

MARTIAK 24

IGORRE

Igorreko I. Dantzari Txiki Eguna. 11:00etan, harrerea eskolan; 11:30ean, kalejireia; 12:30ean, jantza saioa eta 14:00etan, bazkaria.

17:00etan, zinea *La Lego película 2*; 19:30ean, *La mujer de la montaña* Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00etan, Lemoan eta 08:10ean, Igorren.

Ganzabalek antolatuta, mendia urtekerea. Portilla-Berganzo I Txulato (946 m.)-Moratza (1.058 m.).

MARTIAK 27

BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegaz Liburutegian.

MARTIAK 29

AREATZA

19:30ean, Zertu Kultur Elkarteak antolatuta, Laburbira, film laburren proiektzioa Udal Aretoan.



ARTEA

18:00etan, Torontilek antolatuta, *Serigrafia* ikastaroa Mataderoan.

17:30etik 19:00etara, *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroa jubiladuen egoitzan.

DIMA

19:00etan, Dimako Udalak antolatuta, Laburbira, 9 film laburren proiektzioa eskolan.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikastaroa *Autoconocimiento y autoestima* Kultur Etxean.

19:30ean Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak, Bilbao Mendi Film Festivaleko filmak. *Wallmapu*, *Notes From The Wall* eta *This Mountain Life* Lasarte Aretoan.

19:30ean, Maite Losada eta Notas sensibles taldearen kontzertua parrokiaren.

19:30ean, azkenengo barikuetako presoen eskubideen aldeko kontzertua; 20:30ean, Azken bariku dantza Igorreko Axular Herrikoan.

20:00etan, olerki topaketea, Rapsodia Olerki Taldearen eskutik Liburutegian.

MARTIAK 30

IGORRE

22:00etan, zinea *Green Book* Lasarte Aretoan.

LEMOA

16:00etan, Eskualdeko Bola Txapelketea, Elorriagako bolalekuan.

ZEANURI

09:30ean, Gorbeia Jubiladuen Elkarteak antolatuta mendia ibilaldia. Plazea (autobusez)-Barazar-Saldropo-Santa Ageda-Ipiña (hamaiketako)-Arbina-Plazea. Sagarna portalean.

19:00etan, Fausto Mota eta Oscar Romero motorzaleen berbaldia eta ikus-entzunezkoa Kultur Etxean.

MARTIAK 31

IGORRE

17:00etan, zinea *Mirai, mi hermana pequeña*; 19:30ean, *Green Book* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:00etan, Bagabiz badatoz-ek antolatuta, Elkartasun Mendi Martxea presoen alde. Ibilbidea: Elizondo-Iturritxe-Izertza-Kabrerue-Aramotz (511 m.)-Elorria-Larrabeiti-Elizondo. Amaieran jatekoa egongo da.

10:00etan, Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta urtekerea kiroldegitik.

AKIMIKO

Zorrozkiolo



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m² ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixa erosten dot, Sol tonoa balego hobea. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baseri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortu, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607

482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabiz familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Dublindarrak antzezlanerako.**

Beatriz Arza (Igorre)
Begoña Picaza (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Sonakayren kontzerturako.**

Eba Urizar (Dima)
Asier Txarterina (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean meda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimmeda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 75

begitu
mota zehar ezinezko

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 839 • 699 290 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Gorte, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

NADIA ZAMKOVA

"Ulergatxa begitantzen jata kanpoztarren kasuan erdereari lehentasuna emotea Arratian"

Nadia Zamkova Zeanuriko Altxusta auzunean bizi da, aspaldian etorri zan Moskutik. Igazko urri bigarrean, ikasturte barriagaz batera, komunikabideetan azaldu zan Igorreko EPA zentroan euskera taldeak bizi eban egoera salatzeke.

Alvaro Rabelli

Komunikabideetan ikusi zaitugu Igorreko EPA zentroko euskera taldearen egoera salatzen. Zer dala eta?

Hasteko esan behar dot euskera ikaslea nazala, aspalditik Zeanurin bizi naz, seme-alabak euskeraz hazi dodaz, eta oin nire txandea zan, niri toketan jatan euskera ikastea, horregaitik, Igorreko EPAko euskera taldera joaten hasi nintzan. Egoera, baina, sano eskasa izan zan hasikeratik. Akorduan euki behar dogu EPAk ez daukala lokal propiorik Igorren, gu hasikeran parrokiak itxitako soto ilun eta hotz baten gengoan. Tira, horregaitik ni ez nintzan arduratzen, beste batzuk bai ordea, beti kejaka ebilzan, eta gainera batzuei parroki

eskolea emotea ez jakien ondo begitantzen. Halanda be, hogeta bat laguneko taldea ginan eta ni gustura nengoan. Kontua da, ikasturte barriagaz batera, guri ezer esan barik, euskera taldea bertan behera itxi ebela, eta aldi berean, gaztelaniazko bi zabaldu ebezala. Benetan, ez dot aituten zelan Arratian kanpoztarren artean gaztelania bultzatzen daben, kanpoztarrak diralako gehien bat EPAra doazenak. Euskerearen kontrako neurria iruditzen jata.

AEK-ra joatea ez zan urtenbide egokiagoa?

Ez, batzuk Galdakaoko EPAra joaten hasi ziran. Baina, begiratu, guk baliabide ekonomiko urriak daukaguz, eta diru-laguntzak gorabehera, AEK-ko ikastaroak sano garestiak dira guretzat; gainera, beste disponibildade bat

eskatzen deusue, astean lautan joan behar dozu eskolara, nik ez daukat denpora hori, eta hori gitxi balitz, euskaltegiko eskolak tituluak aterateko bideratuta dagoz, ez hizkuntzea ikasteko. Horri be ez deritxat ondo, guri ez jatorku bat be ondo euskera azterketen sistema, batzuk helduak garalako, beste batzuk ikasketarik ez daukielako...

Zertan dago kontua oin?

Bada, sano argi neukan Galdakaoraino ez nintzala joango, zergaitik haraino? Eta hemengo baliabideak? Haraino joateko denporea emon behar dozu, garraioa behar dozu, ez. Horregaitik arazoaren barri emoteari ekin neutsan, zenbaitetan salatu behar da gauzak konpontzeko, eta emoten dau salaketak zeozer lortzeko balio izan ebala, ze, handik gitxira aukerea emon euskuen Igorreko Kultur Etxeak itxitako areto baten jarraitzeko. Beste irakasle bat ipini euskuen. Oin ez gara hainbeste ikasle, esan lez, batzuk Galdakaora joatea ebatzi ebelako, baina, tira, taldeari eutsi ezker, ikasle

"Gauzak zer diran, nik euskera ikasi gura, baina Altxustako andrak ez deuste euskeraz egiten"

gehiago etorriko dira. Bestalde, harrigarria da zein baliabide gitxi ipinten daben Arratiako instituzinoak euskerea benetan ikasi daigun; eta baliabideak egon badagoz.

EParen zereginagaz, oro har, kritiko samarra zara. Zergaitik?

EPAgaz bakarrik ez, hezkuntza sistema osoagaz, zer egiten dabe umeak akademietan? Bada, akademietan badagoz, zarratu behingoz eskolak, ikasteko ez badabe balio, ezta? Baina, bai, nire ustez EPAk beste zeregin bat bete beharko leuke helduen irakaskuntzan. Badira hemen ia ezer ez dakien helduak, eta, jeneralean, heldu guztiok geure ezagupenak barritu behar doguz gizarteko arazoari aurre egingo badeutsegu. Nik neuk EPA horretara bideratuko neuke.

Moskutik Altxustara etorri ziran behin.

Bai, Mosku 1991n itxi neban, Sobiet Batasuna jausten hasi za-

nean. Lehenengoz Altxustara etorri nintzan, gero Altxustara ezkondu nintzan. Leku askotan lan egin behar izan dot, batzuetan errusiera irakaslea izan naz. Oin dana aldatu da, baina akorduan daukat Altxustara etorrita oindino sasoi haretan behi pareagaz landuten zala lurra, traktorerik ez egoan eta. Gauzak zer diran, nik euskerea ikasi gura, baina Altxustako andrak, nire edadekoak, ez deuste euskeraz egiten, ez daukie nigaz pazientziarik. Eta nik euren hitanoa eta guzti ikasi gura neuke.

Errusia gugandik urrun?

Europar gugandik urrunen dagoan herrialdea da bai, baina gaur sano erraz ailegau zeintez hara. Nire bigarren etxea da, itxaropenez ikusten dot. Errusiak egundoko hazkunde ekonomikoa euki dau, baina hango politikea dala eta ez dala jentea bildur da irabazitako apurra galtzeko. Emoten dau, halanda be, apurka-apurka Errusiako gizarteak konformismoari aurre egingo deusala.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA